

Zozketaren oinarri legalak: "GETXO ENPRESA OPARI TXARTELAK"

ANTOLATZAILEA: GETXO ENPRESA, GERTU aplikazioko erakunde laguntzailea (aurrerantzean, «Antolatzailea»)

Antolatzaileak zozketa bat deitu du mugikorreko Gertu aplikazioaren bidez, 50 euroko (zergak barne) txartel bat oparitzeko apirilean, maiatzea, ekainean, uztailean eta irailean, Gertu aplikazioan dauden Getxoko establezimenduetan erabiltzeko.

Lehiaketaren oinarriak honako hauek dira:

1. Gaia

- 1.1. Parte hartu nahi dutenek mugikorrean **GERTU aplikazioa** izan beharko dute eta erabiltzaile gisa erregistratu beharko dira.
- 1.2. "OPARI TXARTELA" promozioa eskaintzen duen saltokietako batean erosketa bat egin edo kontsumitu beharko dute.
- 1.3. Balioztatu "OPARI TXARTELA" promozioa saltokiaren identifikazio kodearekin.

2. Partaideak

- 2.1. Partaideak PERTSONA FISIKOAK izan beharko dira, edozein adinetakoak, Espainian bizi eta aplikazioaren erabiltzaile izan beharko dira.
- 2.2. Ezin izango du zozketan parte hartu Antolatzailearentzako lan egiten duen inork, zozketa antolatzeko parte-hartu duen inork. Antolakuntzako kideen senideek edo ingurukoek parte hartu ahal izango dute.

3. Aurkezpena eta baldintzak

- 3.1. Parte hartzea doakoa da.
- 3.2. Zozketan parte hartzeko erabiltzaileek aplikazioa mugikorrean instalatu beharko dute eta erabiltzaile gisa erregistratu beharko dira. "OPARI TXARTELA" promozioa balioztatu beharko dute erosketak egin ahal izateko.
- 3.3. Zozketan parte hartzeko nahitaez bete behar dira 1. atalean jasotako hiru baldintzak.
- 3.4. Nahi beste erosketa/kontsumo balioztatu ahal izango dira.
- 3.5. GERTU aplikazioa eskuragarri dago Android zein iPhone gailuetarako (Google Play eta AppleStore, hurrenez hurren).
- 3.6. Partaideen artean **irabazle bat** hautatuko da HILABETERO. Zozketa plataforma baten bidez egingo da zozketa.
- 3.7. Gutxiengo partaide kopurua: Hilabeteen, gutxienez, hamar partaide egon beharko dira.

- 3.8. Txartelak emateko gutxieneko partaide kopurua betetzen ez bada, Getxo Enpresak txartelen zenbatekoaren balioa gordeko du eta kanpaina amaitu eta hurrengo hilabeteetan zozkatuko ditu.
- 3.9. Antolatzailea (edo GERTU aplikazioaren bidez) irabazlearekin harremanetan jarriko da GERTU aplikazioan ERABILTZAILE ALTA emateko erabilitako helbide elektronikoa erabilita, eta 24 ordu izango ditu erantzuteko. Erantzunik jasotzen ez bada zozketa errepikatuko da.
- 3.10. Irabazlea Antolatzailearen sare sozialetako Instagrameko argitalpenen bidez jakinaraziko da.

4. Parte hartzeko epea

- 4.1. Hilabete horietako lehenengo egunetik azken egunera.

5. Saria

- 5.1. Hautatutako irabazleak honako sari hau irabaziko du: **Txartel bat, 50 euroko balioarekin (BEZa barne), Gertu aplikazioan dauden Getxoko establezimenduen artean aukeratzen denean gastatzeko. Ezinbesteko baldintza: aukeratzen duen saltokian dagoeneko balioztatze bat egin izana.**
- 5.2. Establezimenduak txartela erabiltzeko baldintzak zehazten ditu eta deskontua duten produktuak edo zerbitzuak alde batera utz ditzake.
- 5.3. Txartelak **saria irabazi eta hurrengo 30 egunetan** erabili ahal izango da, beherapenetan edo outlet garaian izan ezik. Antolatzaileari jakinarazi beharko zaio irabazlea nor den eta txartela non erabiliko duen, txartela erabili baino bost egun lehenago.
- 5.4. Irabazleak saria onartzeak esan nahi du antolatzaileari baimena ematen diola, hedatzeko helburuarekin, bere izena eta irudia erabiltzeko zozketa honekin lotutako sustapen materialean.

6. Datuen babesa

- 6.1. Partaideek zozketan hartzen dutenean zuzenean onartuko dute irabazleak jakinarazteko argitaratuko diren edukiak sortu ahal izatea, bai sare sozialetan baita

beste komunikazio kanal batzuetan ere, hala nola webgunean edo erakundearen beste profil sozial batzuetan.

7. Erantzukizunak

7.1. Antolatzaileak eskubidea izango du:

7.1.1. Edozein parte-hartze edo partaide baztertzeko, datuak behar bezala erabiltzen ez badira.

7.1.2. Zozketan parte-hartzea ukatzeko aipatutako oinarrietan eta terminoetan jasotako baldintzak betetzen ez dituztenei edo zozketaren arauak edo helburua urratzen dituztenei.

7.1.3. Zozketa ezesteko edo bertan behera uzteko, baita baldintzak aldatzeko ere, baldin eta arrazoi tekniko edo bere borondatez besteko arrazoiengatik ezin bada zozketa normaltasunez garatuko dela bermatu, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera.

7.1.4. Informazio eta dokumentazio osagarria eskatzeko (tiketak, ordainagiriak, etab.) egindako erosketak egiaztatzeko, balioztatzen direnean iruzur zantzuak daudenean, esate baterako, saltoki batean edo batzuetan balioztatutako kopurua oso altua denean, edo epe laburrean askotan errepikatu denean, besteak beste.

8. Oinarriak onartzea

8.1. Deialdian parte-hartzeak esan nahi du oinarriak osorik onartzen direla, bai eta GERTU aplikazioaren arauak onartzen direla ere.